



214. zenbakia

URTARRILA 2022

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Azaleko argazkiaren egilea:
Aritz Gorostiaga.
Olentzero Erason.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarilaren 9an bidalia



Nerea Ibarzabal
(2021ko Bizkaiko Bertsolari
Txapelketako irabazlea)
Bukaerako agurra

“ Gure etxeko andre guztiak
Nahi nituzke ohoratu
Egoerarik gogorrenetan
Ez direnak hondoratu

Bizikideei, bertsokideei
Bihotzetik bost olatu
Badago nondik jaso eta
Badago zer geroratu

Muga, kartzela, harresi, ibai...
Galerak zelan kontatu
Merkantzientzat bideak libre
Ta pertsonak zokoratu

Baina itzarrik eusten gaituzten
Idea horiei oratu
Hormak higatu daitezkeelako
Ta arrakalak loratu “



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



COVID-19a

Titularra: Haurren txertaketak mesede egingen dio haien ongizate psikoemozionalari

Gomendioa 5 eta 11 urte bitarteko haurrak Europak adin tarte horretarako onartutako txertoarekin txertatzea da, Comirnaty (Pfizer) erabiliz, hamabi urtetik gorakoetan erabiltzen den dosiaren herenarekin. Hala ere, gurasoek zalantzak izaten jarraitzen dute, beraz, horiei erantzuna ematen saiatuko gara hemen.

Zenbat da haiengatik eta zenbat komunitateagatik? Haurren txertaketak gaixotasunak kolektibo horretan duen karga gutxituko luke, baina baita familian, ikastetxeetan eta komunitatean eman daitezkeen transmisioak ere.

Zaurgarrienak diren horien babeserako laguntza izanen litzateke. Haurrak jendartearen %10 dira, eta haien txertaketak talde babesa lortzea laguntzen du. Gainera, SARS-CoV-2-aren zirkulazioa murriztu eta bariante berrien agerpena ekidinen genuke.

Txertoa eraginkorra eta segurua dela frogatua gelditu da. Albo ondorioak helduenen antzekoak dira: ziztatutako lekuan mina, nekea, zefalea, mialgia, hotzikarak, artralgia, sukarra eta ziztatutako lekua handitzea. AEBetan eta Israelen hainbat milioi txertatu dituzte honezkero, eta ez da alertarako zantzurik agertu.

Ez da aholaktzen txertaketa alergien aurretiko ebaluazio bat gabe edo txertaketa aurreko dosiari erreakzio alergikoa egon denean.

Arrisku oso altuko haurrak txertatu daitezke eta prioritatea dute: transplante baten hartzaileak, tratamendu onkologikoan daudenak, immunodeprimituak, dependentzia gradu altukoak, etab...

Haurren COVID-19aren aurkako txertoak beste edozein txertorekin batera har daitezke. COVIDa pasa duten haurrak dosi bakar batekin txertatuko dira, diagnostikoaren ondoren lau aste pasa direnean.

Haurrek gaixotasun honetatik babestuak egoteko eskubidea dute, normalki modu arinean pasatzen badute ere, larri gaixotzeko eta ondorioak izateko aukerak ere badaudelako.

Garrantzitsua da haien egunerokotasunean izanen lukeen inpaktu positiboa, ikastetxeak ere gune seguruago egingen bailituzke, eta beraz, harremanak ez lirateke gaur arte bezain mugatuak egonen. Pandemian zehar psikiatrek askotan nabarmendu dute haurren ongizate eta formakuntza psikoemozionalerako zein garrantzitsuak diren harreman horiek.

Bestalde, txertaketak hurbileko kontaktuen maneia ere errazten du, hamar egunetako konfinamendua ekiditen eta PCR kopurua erdira murrizten baitu. Onurak berehalakoak dira: familiako eta laneko kontziliazioa hobetzen du, baita jarraikortasun akademikoa eta eskolaz kanpoko, eta harreman interperstonalak ere bai.

Guzti horrekin, pandemia honen ondorio negatiboak zerbait murrizten lagunduko dugu.



Itziar Berasain eta Orzuri Beldarrain, Osasun Etxea

“ **Haurren txertaketak talde babesa lortzea laguntzen du** ”



▲ Haurrak txertatzeko arrazoiak azaldu dituzte kolaborazioan Osasun Etxeko kideek



Baserrietako edo etxe bakanduetako larrialdietan, salbagailua

Sistema oso sinplea da: etxe edo baserri bakoitzari zenbaki bat egokitu zaio, eta zenbaki hori Helpbidea aplikazioan sartuta, larrialdietako zerbitzuek badakite zein den iristeko biderik zuzenena. Oronozko suhiltzaileek bultzatutako aplikazioa eta webgunea da Helpbidea, google mapsen antzekoa, baina askoz ere fidagarriagoa. Isolatutako etxeetara iristeko izaten zituzten oztopoak sahiesten laguntzen ditu. Horregatik, Baztanen hasitakoa Nafarroa osora zabaldu nahi da. Gurean, Basaburuan eta Imotzen martxan jarri da dagoeneko.

Irakurleren batek dagoeneko ikusiko zituen seinaleak. Bidegurutzeetan horiak, etxeetan txuriak. Horiek dira Helpbidean sartutako baserri, etxe eta bordetara eramaten gaituzten seinaleak. Basaburuan bost baserriri jarri zaizkio. Imotzen, guztira, 52 panel jarri dira. Azken udalerrri honetan hutsik dauden bordetan ere jarri baitituzte.

Alfredo Alzueta, Imozko alkatea: "Imotzen oso baserri gutxi dira. Orduan, kopurua txikiagoa zenez, bada, guztietan jarri genezakeela pentsatu genuen. Ez bakarrik bizikiderik dituzten bordetan, hutsik daudenetan ere bai". Santos

Alfredo Alzueta,
Imozko alkatea:

Idea ezin hobea da

Etxegia, Basaburuko zinegotzia: "Zenbaki hori modu askotan erabili daiteke. Hasiera batean bertan bizi direnendako sortu zen. Baina, Imotzen adibidez, norbait galduta baldin badabil, borda bat ikusi, zenbakia hartu eta laguntza eske deitu dezake".

Edonon jarrita ere, helburua berdina da, larrialdietako zerbitzuek ahalik eta denbora gutxien galtzea, Peio Ganboa, Jauntsarasko auzokidea, suhiltzailea da eta udal langileei eta herritarrei sistema azaldu die bilera batean: "Denborak garrantzi handia duen larrialdietan denbora irabaztea da lortu nahi dena. Esate baterako, sute batean bost minutuko gorabehera edo hamabost minutukoa asko da. Bidea hasieratik zein den zehazki jakitea eta denborarik ez galtzea etxea bilatzen, horiek dira helburu nagusiak".

Sorlekua, Baztan

Helpbidea programa Baztanen jarri zen martxan lehenengo aldiz, Peio Ganboa suhiltzaileak, azaldu digunez: "Suhiltzaileen aldetik eta Oronozko parkearen nagusiaren aldetik jaio zen, berak interes handia jarri baitzuen. Parkeetan urte askotako lan handia zegoen eginda baserrien ibilbideak zehazten, informatizatzen, geolokalizatzen. Gero konturatu ginen Foruzaingoak beste lan bat zuela eginga beraientzat, osasun etxekoek beste bat... orduan, Helpbideak lan guzti horiek elkartu eta denontzako, hau da, administrazio publikoko langile guztiondako balioko duen tresna bat sortu du".

Santos Etxegia, Basaburuko zinegotzia: "Hemen Basaburuan bost bat baserri daude, baina beste udalerrri batzuetan, Leitzan edo



Helpbidea aplikazioa

Peio Ganboa,
suhiltzailea:

Zailtasunek estres handia sortzen digute, guri eta etxean itxoiten dagoenari, noski



Baztanen, adibidez, baserri pila dute, batzuk izen berarekin, gainera. Batzuetan ez dakite zehazki ze baserri den edo nola heldu. Herri barnean ez daudenez, oso zaila da jakitea nola iritsi”.

Ondoren, ondoko bailaretara, Bortziriak eta Malerreka zabaldu zen. Orain gurera ere, Basaburura eta Imotza iritsi da, eta asmoa Nafarroa osora zabaltzea da, “eta ez bakarrik larrialdietarako, administrazioko beste langileentzat eta beste arlokoentzat ere balio izatea, basozainendako, adibidez”, esan digu Ganboak.

Hurrengo pausua, ikuiluak

Basaburuan eta Imotzen asmoa dute heldu den urtera begira ikuiluetan ere jartzea.

Alfredo Alzueta, Imozko alkatea: “Herritik kanpo dagoen edozein azpiegituratan jarriko dugu, ia ez bakarrik baserrietan edo bordetan, ikuilu batean adibidez -horiek baitira gainera, istripu bat egoteko aukera gehiago dutenak-. Oso diru gutxi balio du eta oso lan gutxi eskatzen duen sistema bat da, eta benetan bermatzen dizu gero segurtasuna”.



▲ Bidegurutzetako seinalea

Santos Etxegia, Basaburuko zinegotzia: “Hemen lan egiten dutenak ere babestu nahi ditugu eta lantokietan ere istripuak gertatzen dira. Horregatik, hurrengo urtera begira inguruko ikuiluak ere sartzeara da gure asmoa. Eta ekimena ez dago itxita, hemendik aurrera, baserri berri bat eraikitzen dela, nahiz eta asteburuak etortzeko bakarrik izan, dei dezala eta bere zenbakia eta seinalea jarriko zaio”.

Baserrietan, pozik

Helpbidea bezalako sistema sinple batekin, denok irabazten dugu, guztion lasaitasunerako sortu baita. Peio Ganboa, suhiltzailea: “Urteetan izan dugun oztoporik nagusia izan da askotan helbidea ez dugula argi jasotzen, adibidez, herri txiki batean auzoaren izena ematen dizute baina ez dakizu oso ongi nondik joan, nondik ailegatu azkarren... Baztan, Malerreka, Bidasoa... oso gune zabala da, baserri pila dira eta ezinezkoa da denak ezagutzea. Batez ere gauean oso zaila da orientatzea, zer bide hartu behar duzun jakitea, eta behin baino gehiagotan gertatu zaigu bueltaka ibiltzea borda bat ezin topatuz. Zailtasun horrek estres handia sortzen digu, guri eta etxean itxoi ten dagoenari, noski”.

Baina Ganboak azpimarratzen duen bezala, herritarrek izanen dira sistemaren onuradun nagusiak. Igoan Encarna Martikorenarekin izan gara, Salbadoren Bordako bizilaguna, bertan poz-pezik dira sistema berriarekin: “Bai, bileran egon ginen eta oso ideia ona iruditzen zaigu. Azkeneko urtean askotan tokatu zaigu anbulantziara deitzea eta hura etxea ezin bilatu”.

Santos Etxegiaren ustez, gainera, herrien hustutzearen aurkako neurria ere bada Helpbidea: “Segurtasuna ematen die herritarrei eta herritik kanpo bizi direnei. Ziurtatuta duzu zerbait pasatzen



bada jakingo dutela non zauden eta nola iritsi zu zauden tokira. Orain arte, askotan, herriko norbait joaten zen larrialdi zerbitzuen bila, bidegurutzera, bidea erakusteko. Baina gero eta jende gutxiago dago baserrietan eta herrietan”. Eta Etxegiak aipatu bezala, nahiz eta sistema herritarrendako sortu den, kanpotik datozenendako ere segurtasun ziurtagiria izan daiteke, Imozko alkateak azaldu digu: “Ideia ezin hobea da. Zenbaki bat besterik ez duzu behar, ez jabearen izena, ez etxearen izena, ez ezer. Zenbaki bat besterik ez. Eta zenbaki bat berdina da zein hizkuntzatan esaten duzun, gehiengoak ulertuko dizu. Euskaraz ez dakien norbaitek hemengo izenak gaizki ahoskatu ditzake, edo oso antzekoak direnak nahastu, baina zenbaki bat ez”.

**Encarna Martikorena,
Salbadoren bordakoa:**

“Askotan tokatu
zaigu anbulantzia
etxea ezin bilatu
ibiltzea”

Euskal emakumeak gogoan

Historian **eragina** izan duten pertsonengan pentsatzen hasiz gero, segur aski, zerrenda luze samarra osatuko genuke: politikari, zientzialari, iraultzaile, idazle edota bertzelako pertsonaiak **etorriko zaizkigu gogora**. Baina, zerrenda horretako zenbat dira emakumeak? Zoritxarrez, guti, sobera guti. Emakume garrantzitsurik **burura ez etortzeak**, ez du erran nahi egon ez direnik. **Aitzitik**, noski, egon direla, eta badaudela; baina, gehienetan, ez zaie gizonei adinako garrantzirik ematen.

Aipatutakoa ardatz, Lola Valverde historiagileak ikerketa sakonak egin izan ditu gaiaren inguruan. Horren adierazgarri tiki bat bertzerik ez da 2011n, Valverdek eta Eusko Ikaskuntza erakundeak Kukuxumuxurekin batera kaleratu zuten kamiseta. Bertan, Euskal Herriko historiako 44 emakume agertzen dira; garai eta klase sozial ezberdinetakoak. Aunitz dira, baina horien artean honako hauek aurki daitezke: Matilde Uitzu, Marie Coulon, Maria de Maeztu, Dolores Ibarruri, Kattalin Agirre, Juana III Labrit, Maialen Lujanbio, Inesa Gaxen...



Kasilda Hernaez ▲



Eulalia Abaitua ▲



Kukuxumuxuk Eusko Ikaskuntzaren lanerako egindako irudiak ▲



Den-denak aipatu ezin ditugunez, zerrenda luze horretako hiru emakume aukeratu ditugu laburki azaltzeko:

• **Kasilda Hernaez:** 1914an sortu zen, Zizurkilen. Garaiko anarkista eta feminista ezaguna dugu Kasilda, bizi guzia eman baitzuen iraultzaren alde borrokan. Hala, 1931n, CNT eta Gazte Libertarioak erakundeko kide izan zen. Gerra Zibilaren hasieran, fronteko lerroan jo ta su borrokatu zuen Aiako Harriaren eta San Martzial mendiaren defentsan. Geroago, Katalunia, Madril, eta Aragoiko fronteetan aritu zen, eta, azkenik, Biarritzen bere bikote Likinianorekin batera erbesteraturik, 1992an zendu zen.

• **Elvira Zipitria:** 1906an, Zumaian sortu zen Elvira. Magisteraitzako ikasketak bukatu ondotik, Errepublika garaian, lehenbiziko ikastola sortu zuen Donostian. Francoren etorrerarekin batera urte batzuek alde egin behar izan zuen arren, herrira bueltatu zelarik, utzitako bideari ekin, eta bigarren ikastola bat abiarazi zuen. Horrela, poliki-poliki, ondoren etorriko ziren ikastolei bidea ireki zien andereñoen andereñoak.

• **Eulalia Abaitua:** Argazkilari hau 1853an sortu zen Bilbon. Euskal Herriko lehenbiziko emakume argazkilaria izan zela erraten da. Familia aberats batetik heldu zen arren, pertsona xumeen argazkiak egin zituen batez ere. Gisa hartan, balio handiko argazki historikoak egin zituen: garaiko ohiturez, jaiez eta tradizioez jantzitako erretratutak, baserrikoak zein hirikoak.

Pulunpeko erredakziotik Mendialdeko IKAtik hartutako testu honi zerbait gehituko genion. Izan ere, kontakizun honetan Nafarroatik kanpoko hiru emakume aukeratu dituzte. Baina Nafarroan ere **ekarpen** handiak egin dituzten emakumeak izan ditugu, eta, are gehiago gure eskualdean: Luzia Goñi Ollas Basaburuko bertsolaria, Ilarregiko Urrikenia etxeko Xole Erbiti Arbilla Nafarroako lehenengo euskara teknikaria edo Beuntzako Ceferina Fontellas Abarzuza liburudendako sortzailea, adibidez. Haiei buruzko informazioa aurkitu dezakezue 192 eta 193. Pulunpeetan.

Hiztegia

Eragina: influencia

Gogora edo burura etorri: venir a la cabeza

Gogoan: en la memoria

Aitzitik: por el contrario

Aipatutakoa ardatz: teniendo en cuenta lo

mencionado

Eskerrik asko, TXANI



Tristura handi batek besarkatu gintuen jakin genuenean Plazaola Gozotegiak bukatutzat emanen zuela bere ibilbidea. Kasik 10 urte pasatu dira eta zure onena eman diguzu, Txani, beti abegikor, beti eskuzabal, beti goxo. Latasako txoko xarmanta, asteburueroko topagune sozial bilakatua, urtez urte, gutako askorentzat. Maitasun eta kalitate handiz eginiko ogia, opilak, pizzak... zure artelanak, ordezkaezinak izanen dira. Baina zure osagai nagusia betiko biziko da gugan: samurtasuna.

Ziur gaude bizitzak ezusteko ederrak ekarriko dizkizula, eta gu, nola ez, ondoan izanen gaituzu.

Berriz arte!



Imoztarrak & co



Orokietako ostatuak irabazi du Basaburuko pintxo lehiaketa

Pasa den urtean, izurritearengatik, bertan behera gelditu zen. Baina aurreten itzuli da Basaburuko pintxo lehiaketa. Azaro bukaeratik abendu hasiera bitartean izan zen, eta Orokietako ostatua izan zen garailea.

Iruñeko Fernando Gurucharrik eta Mari Jose Aceñak hartu berri dute Orokietako ostatua, lehenengo urtea haien eskuetan eta Basaburuko pintxo lehiaketako txapelarekin egin dira, beno, tira, txapelarekin baino gehiago, mandarrarekin. Argazkian Marimar Ansorenarekin eta Nati Urritzarekin, haiek eman zieten garaipenaren mandarra.

Orokietako ostatuak Aizarozkoa, Apeztegi berri eta Udabeko Benta izan zituen lehiakide. Hona hemen bakoitzak aurkeztutako pintxoak.

Orokietako Ostatua

Hostopiloa ahate konfitatuaz, onddo beltzaz eta sagar konpotaz beteta, onddo saltsarekin.

Apeztegi berri

Arto irinaz egindako opila, txekor mihi eskabetxatuaz eta Golderazko ahuntz gaztaz eta etxeko tomate mermeladaz beteta.

Aizarozko Ostatua

Ogi xigortua, rona eta eztiarekin egindako gaztainazko saltsarekin, urdaiazpiko xigortuarekin eta galeperreko arrautza frijituarekin.

Udabeko benta

Ardo beltzean egindako karrillerak tipulin aromarekin.

Hona hemen osatatu bakoitzak aurkeztutako pintxoak:



Udabeko bentak aurkeztutako pintxoak ▲



Apeztegi berri aurkeztutako pintxoak ▲



Orokietako pintxoak ▲



Orokietako ostatua izan zen garaile ▲



Patxi Mirandaren Kudea>GO proiektua, Nafarroako hainbat eskualdetan martxan

Aizarozko (Basaburua) Patxi Mirandak abiatutako aplikazioa da Kudea>GO, landa eremuko mugikortasun arazoari irtenbide alternatiboa eskaintzeko egitasmoa. Autoa partekatzeko aplikazioa da, eta honezkero, Nafarroako hainbat eskualdetako Udalen babesa jaso eta martxan da horietan: Imotzen, Sakanan, Pirinioetan, Larraun aldean, Urraulbeitin eta Esteribarren, adibidez.

Bere garaian Esan Erranen eta Pulunpen egin genion proiektuaren inguruko erreportajea, baina geroztik, zabalkunde handia izan du egitasmoak. Sakanan, mugikortasunaren inguruko proiektu pilotu bat jarri dute martxan, eta mahai horretan parte hartzen ari da Miranda ere. Horrez gain, Euskal Herri mailako nahiz hortik kanpoko foro desberdinetan ere izan

da aizaroztarra, besteak beste, Arabako jardunaldi batzuetan eta Madrilko foro batean ere.



Patxi Miranda aizaroztarra dago proiektuaren atzean ▲



CAMPING · KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Neurri bereziekin izan bazen ere, eskualdea bisitatu zuten Olentzerok eta Mari Domingik

Babes neurri bereziekin izan bazen ere, aurtengoan ere jaso dugu eskualdean Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita. Abenduaren 24an Udalerri eta herri askotan antolatu zituzten ongi etorriak.

Imotzen, adibidez, Erason egin zieten ongietorria Olentzerori eta Mari Domingiri, arratsaldeko 18:30ean. Jende ugari batu zen ekimenera, eta musikaz girotu zuten eskualdeko herritarrek arratsaldea.

Basaburuan, Igoan eta Gartzaronen izan zituzten Olentzeroren bisitak alde batetik, eta udalerri mailan, berriz, Jauntsaratsen antolatu zuten bisita. Hori bai, modu oso berezian egin zieten ongi etorria: herri bakoitzari ordutegi bat egokitu zitzaion bisita egiteko, pilaketak ekiditeko asmoz antolatu zuten modu horretan egitasmoa.

Ultzaman, herri bakoitzak bere ongi etorria antolatu ohi du urtero, eta horrela izan zen aurtengoan ere. Odietan, koronabirusaren egoera zela eta, udalerri mailan ongi etorriak ez antolatzea erabaki zuten aurtengoan.

Atetzen, Eritzegoitin egin zioten harrera Olentzerori, arratsaldeko 18:00etan. Gainera, hurbildu zirenek txokolate beroaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Egoerak behartuta, segurtasun neurriak errespetatzeko eskatu zuten antolatzaileek, hala nola, maskarila erabiltzea eta distantziak mantentzea.

Anuen ez zen ongietorri ofizialik egin, guk dakigula. Bukatzeko, Lantzen izan zuten Olentzeroren bisita. Hori bai, iaz bezala, kalean beharrean, herritarrek etxeko leiho eta balkoietatik izan zuten bera agurtzeko aukera.





Aizarotz, 22. Korrikaren bideoklipean

Abenduaren 16an aurkeztu zuten 22. Korrikaren abestia eta bideoklipa, Iruñeko Golem Baiona zinemetan. "HitzEkin" izenburupean, Nerea Urbizuk zuzendu du lana; eta, zati bat Aizarotzen grabatu da, Basaburuko herritarrek protagonista direla.

Sustrai Colinak sortutako hitzak Ane García, Anarik eta Nerea Urbizuk abestu dituzte. Eymard Uberetagoena (Tripulante Produce) aritu da ekoizpen lanetan. "HitzEkin" da kantaren izenburua, eta pop kutsua du. Hiru adin desberdinetako emakumeek abestu dute, gure helduen eta txikien arteko katea irudikatzeko.

Mezuari dagokionez, Urbizuk adierazi zuen bezala, irekia da baina hainbat balore bultzatzen ditu: "Ahalduntzea, oztopoen gainetik aurrera egitea eta beldurrak gainditzea".


"Hainbat istorio biltzen dituen film laburra da, eta jendeak korrika egiteko motibazio ezberdinak dituen moduan, KORRIKArekin ere halako zerbait gertatzen da: sentsibiltate desberdineko jendea biltzen duen arren, denoi eragiten digu indar batek, poz batek, babes batek", azaldu du Urbizuk.

Bideoan gure eskualdeko herritarrek ikus daitezke, Aizarotzen grabatu baitzen zati bat, azaroaren bukaeran. Berueteko Mikaela Elizalde, Gartzarongo Amaia Legarra, edo Aizarozko Eneko Iurramendi, losu Jauregi, Irantzu Perez eta Edurne Koch ageri dira, besteak beste.

22. KORRIKA martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartean izanen da. Amurriotik abiatuko da eta Donostiaraino egingen du bidea.



Edurne Kochek eraman zuen lekukoa Aizarotzen grabatutako irudietan ▲



**TXAKUR
JANARIA**

CARLOS 660781595
Pili 650206699





Joxe Jabier Elizalde

ASINARIUS

Pleistozenoan bizi eta, noizean behin, agertu ohi da zenbait tontakeria nahiz astakeria esateko. Oraingoan, metamorfosiaren ondorioz edo, biboterik gabe etorri zaigu. Joxe Mari Aznarren gainean ari naiz. Bai.

Berriki, Sevillako konbentzio edo PPren hitzarmenean izan zen. Hantxe, ondoan, Pablo Casado txaloka, irrifartsu. Aznarrek, besteak beste, Aita Santuaren jarrera kritikatu zuen, hain zuzen ere, honek Ameriketako konkistan Elizak egindako astakeriengatik barkamena eskatu zuelako. Honela zioen: "Nik ez dut, inondik inora, barkamena eskatuko, ez, harro sentitzen ahal naiz, baina barkamena eskatu ez." Ondoren, Andrés Pérez Obradori buruz (Mexikoko presidentea): "Bere izen abizenak Espainiarrak dira, ez dira Aztekar ez Maiak ere, hain zuzen ere, bataiatua izan zelako Espainiarrak eramandako erlijioarekin".

Nire ustetan, hitzez gain, deigarriena beste behin, erakutsi duen harrokeria. Betikoa. Berak ez omen du barkamena eskatuko. Ezta Irakeko gudan (inbasioan) gertatutakoaz ere. Milioi hildako baino gehiago. Ez da ez, ahuntzaren gauerdiko eztula! Halere, harro da. Lotsagarria. Izan zuen, bai, sare sozialetan eta Mexikoko Gobernuaren erantzuna. Seguruenik, bost axola Jose Mariri, bera dena eta denen gaineratik baitago. Morena deituriko Gobernuak taldeak "Frankista eta guda bultzatzaile eta zirikatzzaile" deitu zion. Ignazio Mierrek (diputatuak) esan zuenez, Aznar abizena "asinarius"tik dator "astozain" esan nahi du, astoak zaintzen dituen, alegia. Eta Joxe Mari horretan bihurtu omen, asto batean, hain justu.

Ez genioke garrantziarik eman behar horrelako tipo batek esandakoari baina... Mea culpa. Orain nik zuei barkamena eskatzen dizuet hau guzia gogorazteagatik.

Neguko festak ospatu dituzte Aizarotzen

Aspalditik datorren tradizioa da Aizarozko neguko festena. Izan ere, garai batean, kanpoan lan egiten zuten herritar guztiak eguberrietarako bueltatzen ziren herrira, eta berrelkartze hori ospatzeko elkartzen ziren abenduaren 26arekin herriko Ostatuan. Garai zaharretako ohitura hori oinarri hartuta, duela zenbait urtetik neguko festak berreskuratu eta egitarautxo prestatzen dute herritarrek.

Aurtengoan, herri krossa eta bazkaria izan zituzten Aizarotzen. Goizeko 11:30ean ireki zen krossean izena emateko aukera, eta 12:00etan ekin zieten lasterketei. Adinaren arabera, ibilbide desberdinak prestatu zituzten antolatzaileek, baina denak ere herrian barna ziren, plazatik abiatuta. Bazkaria eta gero Mexikortxo Bandaren 10. urteurrena ospatzeko kontzertua izan behar zen, baina azkenean, bertan behera uztea erabaki zuten. Basaburuko banda mitikoaren urtebetetzea aurrerago ospatzeko aukera izanen dela espero dugu. Bukatzeko, gauean, bokatada izan zuten Ostatuan, eta herriko DJak aritu ziren musikaz giroa alaitzen.



Krossa egin zuten lehen aldiz Aizarotzen



La Unicako emakumezkoen errugbi taldea, Eurochallengeko txapeldun

Estatuko mugetatik at dauden taldeen arteko txapelketa da Eurochallenga, gizonezkoen artean dagoeneko jokatzeko zena. Orain, lehenengo aldiz antolatu da emakumezkoen taldeen artean, eta Ultzamako jokalariek asko etxera den Iruñeko La Unica taldeak lortu du txapela. Lau talde izan ziren norgehiagokan. Euskal Herriko hegoadetik bi talde:



▲ Ixiar Braco lizasoarra, La Unicako kapitaina, txapela eta kopa altxatuta. La Unicako Flickr-etik hartuta

Bera Bera eta La Unica; eta, iparraldeko beste bi: Peyrehorade-Tartas-Chalose eta Biarritz-Hasparren.

Finalera hegoaldeko bi taldeak iritsi ziren, eta, esan bezala, La Unicak irabazi zuen 19 eta 0. La Unicako kapitainak, Ixiar Braco lizasoarra, horrela azaldu digu: "Ez genuen espero irabaztea, are gutxiago talde honen aurka, pasa den urtean haien aurka final bat galdu genuen eta zalantza asko genuen. Bera Bera aurreko urteko ligako irabazlea da, oso talde ona, jokalariek oso onak dituenak, eta ez genuen espero, gutxiago, markagailuan 0an uztea". Hala ere, nahiz eta hutsean utzi aurkaria, garaipena zaila izan zela onartu digu Bracok: "Emaitza horrek ez du islatzen sufritu genuen guztia. Lehenengo 20 minutuetan oso parekatuak aritu ginen bi taldeak, ondoren gure lehenengo entseguarekin etorri zen, eta hortik bigarrena erraz lortu genuen. Ondoren, haiek ez zuten etsi, eta atsedenaldiraren ondoren, kostata, egin genuen hirugarrena. Jokoa oso berdindua izan zen eta haiek ere sekulako meritua dute".

Ainhoa eta Maria Iraizotz, Euskadiko txapeldunak



▲ Ainhoa eta Maria Iraizotz, Gernikan

Gernikan gailendu ziren, erraz, Amaia Mendinueta eta Iraide Guezuragaren kontra.

Abenduaren 19an, Gernikako merkatu plazan, izan zen Euskadiko emakumezkoen trontza txapelketaren finala. Bete beharreko lana: etzanda jarritako 45 ontzako enborrean 10 epai.

Erraz irabazi zuten Ainhoa eta Maria Iraizotz ultzamarrek, 6 minutu eta 16 segundotan osatu baitzuten lana, eta 8 minututan lehiakideek. Baina, Ainhoa Iraizotzek aitortu zigun ez ziren oso ongi ibili: "Nahiko gaizki moztu genuen, ez baikenuen erritmoa hartu. Finala baino lehen arazo bat izan genuen fitxarekin, ahaztu egin zitzaigulako, eta azken momentura arte ez genuen jakin parte hartzen utzikiko ziguten edo ez. Argazki bat erakutsita, azkenean, lehiatu ahal izan ginen. Baina gertatutakoak deszentratu egin gintuen", azaldu digu.

Gertatutakoak gertatuta ere, oso ongi ari da Ainhoa Iraizotz azkenaldian. Hain zuzen, Euskadiko final mistoan segundo bakar batengatik galdu zuen txapela, Josetxo Barberena ultzamarrekin bikote.

Anueko

mendiak

Hain ezagunak ez diren tontor txikiak markatzen ari da Aritzuko familia bat

Etxeko txikienei ingurune hurbila ezagutarazteko asmoz eta naturaz gozatzeko ideiarekin abiatu zuten udan Aritzuko Ramorena etxeko kideek ekimena. Anueko mendiak markatzen ari dira, batez ere hain ezagunak izan ez baina xarma berezia duten horiek. Roberto Reta izan da bultzatzaile nagusia, etxekoekin batera. Baina seinaleak egiteko eskulanetan eta ideiak gauzatzen, haurrak ari dira.

“Oso gustuko dugu gure familian mendira joatea, hemen inguruan asko ditugu 900 metro baino gehiagokoak”, azaldu du Retak. Mendira egiten zituzten irteera horietako batean, mendixka askok inolako markarik ez zutela konturatu ziren: ez izenik, ez seinalerik, ez buzoirik... “Mendi oso politak izanda ere, jende gutxik ezagutzen ditu horietako gehienak”, dio. Hori horrela, markatze lanak haiek egin zitzaketela bururatu zitzaientzen, etxeko txikienekin eskulanak eginez, eta aldi berean, inguruko mendiak ezagutuz.

Udan hasi ziren mendien markaketekin. “Hemengo errekatik harri handi xamarrek hartzen ditugu, eta guztia kolore batez margotzen. Haur guztiek hartzen dute parte horretan, eta esku artean ditugun mendietatik bakoitzak gehien gustatzen zaiona aukeratzen du”, azaldu

du Retak. Uxue, Ander, Haizea eta Ixone dira etxeko txikiak, markaketa lanetan ari direnak. Ramorena etxeko lehengusu-lehengusinak dira guztiak, eta elkarrizketa egiterakoan bakoitzak aukeratutako mendiez galdetu diegunean, segituan jarri dira mendien izenak botatzen: Kedarbe, Artzeki, Sabaiaundi, Garbitz...

Bederatzi mendi markatuak, eta gehiago bidean

Udatik hona Anueko bederatzi mendi markatu ditu familiak, baina beste bi ere bidean dira. Aurrera begira, ekimenarekin jarraitzea da haien ideia, oraindik zenbait

mendi eta bestelako paraje asko falta baitzaizkie markatzeko. Mendi bakoitzean izena eta altitueda adierazi dituzte, baina horrez gain, inguruarekin lotura duen elementuren bat ere marraztu dute harrian. “Ingurua deskribatzen duen marrazki bat egin diogu harri bakoitzari, mendi horren identitatea ere nolabait jasotzeko”, dio Retak. Esaterako, Alanegi mendiarenean, egin duten azken markaketan, ezpela marraztu dute harrian, Anueko ezpeldi nagusietako bat bertan baitago. Ildo berean, trikuharria dago Garbizko seinalean, oreina Artzekirenean, ura Itorrondorenean...

“

Haurrekin egiteko ekimen oso polita da mendiak markatzea, ingurua ezagutzeko eta naturaz gozatzeko

”



Roberto Reta, Aritzuko Ramorena etxeko txikiekin ▲



Ohikoa da gaur egun mendi inguruetan tontor zehatz batzuk oso ezagun egitea eta mundu guztia horietara bakarrik igotzea. Bada, horrelako ekimenekin, ezezagunagoak diren toki horiei ere balioa ematen zaie, eta inguruko herritarrek leku horietara ere joatea bultzatuz. "Jendeak zertan ari ginen jakin zuenean, esaten zigun: 'Harriak jartzen ari zaretela? Eta non daude? Joan nahi dugu eta!'".

Parajeen izenak bizirik mantentzen daitezela

Momentuz markatu dituztenak mendiak izan badira ere, Ramorenako familiak ez du baztertzen gerora bestelako parajeak ere markatzea. Horrela esan du Eneko Iraizotzek: "Orain artekoak tontorrak izan dira,

baina noski, hor badira beste izen asko, inguru hauetako artzainek erabiltzen zituztenak, pixkanaka galtzen joan direnak. Haiek txoko guztien izenak erabiltzen zituzten haien artean komunikatzeko, eta mendi beraren iparraldeko eta hegoaldeko magalek askotan izen desberdinak zituzten". Erabilera faltagatik pixkanaka galtzen joan diren toponimo horiekin gertatu dena ekiditea ere bada mendiak markatzearen abantailetakoa bat. Izan ere, seinalizatutako paraje horien izenak gordeak gelditzen dira, nolabait.

Mendiakizendatzerakoan, mapetan eta herritarrek kontatutakoan oinarritu direla kontatu digute, baina bietatik, bigarrenari eman diote garrantzi handiagoa. "Ni ez naiz Aritzukoa eta, beraz, ikasten joan naiz, ingurukoak eta adineko

jendea joan da niri lekuen izenak esaten. Horrez gain, mapetan ere informazio asko topa daiteke gaur egun, baina, egia da batzuetan mapetan agertzen diren izenak benetan ez direla erabiltzen", gehitu du Retak. Artzeki mendiaren kasua da hori: mapetan ez da izen horrekin agertzen, baina herrian mundu guztiak betidanik horrela deitu izan dio.

Pozik dago familia orain arte egindako ibilbidearekin, eta Anueko jendeak ere geroz eta gehiago galdetzen dietela diote. "Harriekin topo egitean galdezka etorri dira asko, ea nondik atera diren, politak direla eta argazkiak atera dituztela...". Azken batean, jendeari hurbileko toki ederrak ezagutaraztea ere bada ekimenaren helburua. Bada, horretan ari dira.

Zeintzuk dira orain arte markatutako mendiak?



Kedarbe: 1.162m



Artzeki: 1.082m



Iturrondo: 1.340m



Sabaiaundi: 1.128m



Garbitz: 1.074m



Mixuleta: 827m



Alanegi: 718m



Eztapuru: 995m



Gereziaín: 1.091m





Maite Mutuberria,

ilustratzailea

Eguneroko soinu banda irudikatu du, Leire Bilbao idazlearekin

: Leire Bilbaok eta Maite Mutuberria eltzaburuarrak 2016an argitaratu zuten Piztipoemak eta beste xomorro batzuk eta Xomorropoemak eta beste piztia batzuk; orain, horien jarraipena, Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk atera dute. Mutuberriak Bilbaoren hitzei irudiak jarri dizkio guzti horietan. Gehiagotan ere batera lan egin dute, elkarrekin ongi eta gustura aritzen baitira. Pamielak argitaratutako azken honek, Barruko hotsak liburuak, ume baten eguna kontatzen du, soinuen bitartez hamaika kapitulutan.

Nola sortu da Barruko hotsak?

Leire etorri zitzaidan ideia honekin, eguneroko soinu banda egin nahi zuela esanez. Egunerokoan baditugulako soinu asko eta ez diegu arreta jartzen. Adibidez, altxatu eta gosaltzen ari garela koilararekin bueltak ematen, horrek badauka soinu jakin bat, edo janzen ari garela, jertsea burutik pasatzerakoan, horrek beste soinu bat dauka. Leirek poemak egin zituen eguna hasten denetik bukatzeraino dauden soinu guzti horiekin.

Elkarlanean berriz, argi dago gustura egiten duzuela, eta ongi ulertzen duzuela elkar, ezta?

Alde batetik, artistikoki edo sorkuntza aldetik liburugintza modu berean ulertzen dugu biok. Bestalde, oso ongi ulertzen dugu bakoitzak baduela bere eremua. Testuak irudia aberasten du eta alderantziz nik iradokizunak egiten ahal dizkiot Leireri eta horrek ere aberasten du, baina betiere errespetuz, azkeneko erabakia berea dela jakinda, eta berak ere horrela ulertzen du nire lana. Horregatik moldatzen gara hain ongi. Elkarrietzeta horiek asko laguntzen dute gure lanean baina aldi berean ni oso aske sentitzen naiz, eta hori plazer handia da, horrela lan egitea.

Nolakoa izan da marrazkiak egiteko prozesua?

Marrazkiak egiteaz gain diseinua edo maketazioa ere egin ditut. Hau da, testuak ere nik jarri ditut liburuan. Horrela, soinuak protagonistak direnez, kaligramak egingo genituen. Kaligramak letrekin irudiak sortzean datza. Irakurleak poema ikusterakoan soinua ere entzun zezala lortu nahi nuen, letren irudi horiek nolabait ia transmititzen dizute zein soinu den protagonista. Hori alde batetik. Bestetik, beti bezala, ilustrazioak egin ditut. Eta, kasu honetan, poema bakoitzak grafikoki indar handia duenez dagoeneko,

ilustrazioak kapituluen azalean eta kapituluen amaieran jarri ditut. Ilustrazioak, beraz, testuaz aparte daude, fisikoki eta kontzeptu aldetik ere bai. Nik tira egiten diot Leirek sortzen dituen hainbat kontzepturi, baina nik beste galdera batzuk sorrarazi nahi ditut irakurleak. Poema bisualak izan daitezela, ez bakarrik apaingarriak. Adibidez, liburuaren lehenengo poema honakoa da: Klik entzun da bat-batean eta nire ganbarako argia piztu da. Hor pertsona bat irudikatu nezakeen, argia pizten, baina bonbilla bat irudikatu dut eta gertutik ongi begiratzen badugu konturatuko gara pertsonaren perfila ere baduela. Horrelako



Maite Mutuberria eta Leire Bilbao, Durangon



jolasak egiten saiatu naiz. Irudiarri bi aldiz begiratu behar zaio.

Beraz Leire Bilbaok testuarekin jolasten duen bezala, zuk ere joko bat proposatzen diguzu ilustrazioekin?

Bai, nik beti defendatzen dut irakurlea inplikatu behar dugula eta irakurleak ere gehitu behar diola zerbait irakurketari. Eta horregatik atsegin dut jolasak proposatzea.

Onomatopeiak, eguneroko soinuak, joko handia ematen duten elementuak dira. Zuretzat oso estimulagarria izan dela esan duzu, ezta?


Bai. Egia da ni nahiko inkonformista naizela eta ez zaidala gustatzen egiten dudana errepikatzea eta horregatik gustatzen zait erronka berriak jartzen dizkidaten testuak. Eta horrela izan da. Alde batetik, diseinu aldetik ikasi behar izan dut, letrekin nola irudikatzeko lan hori, eta bestalde irudi aldetik

ere teknika berriak bilatu ditut. Leirerekin egin genituen aurreko bi poesia liburuetan collage-a erabili nuen eta kasu honetan grafikoki letrek hainbeste pisu zutenez, ilustrazioek soilagoak izan behar

zutela ikusi nuen. Erabili dudak teknika oso irudi zurrunkak edo itxiak erabiltzean datza, kolore gutxirekin eta kolore lauak erabiliz. Ez dago degradaturik eta horrelakorik, teknika ez baita protagonista.



Klik ▲



Zabaldu barruko leihoak!



Xabier Zabala musikari eta konpositoreak liburu honetarako beren-beregi sortutako egun bateko soinu banda.





Orokietako Apezeneko bertsolari sokaz zerbait

Orain hiru urte Pulunpen, **Sasuan** zenaz, Antonio Ziaurritz bertsolariaz idatzi genuen eta honek nolako joera zuen Suarbera joatekoa, bertan bere gisako batzuekin biltzeko ostatuan, kantuan edo bertsoan aritzeko. Horietako bat Pedro Juan Ezkurra dugu, Orokietako **Apezeneko** nagusia, Sasuanek zioenez:

Gizon propie da-ta
Errespetokoa,
Ez ttiki t'ez aundi
Neurri onekoa;

Eta Pedro Juan bertsolaria zela jarri genuen, baina geroztik ikasi dugunez, dirudienez behintzat, zalea gehiago zen. Honek, igande batez,

elizarako bidean polainak galdu eta Sasuanek bertsoak jarri zizkion.

Eta Ezkurrak bai erantzun ere, baina ez dakigu zer dela eta, erdaraz erantzun zion. Bertso horiek galduak dira zatitxo hau ezik:

"Con veinticinco botones
polaina ha perdido"
En mi tiempo polaina
no he perdido.
Con lo que llevé a fuera
a casa he venido.

Hanka luze eta hanka motz, denetik da hor. Ez, ez dirudi bertsolaria zenik hau.

Ultzamarrei bertsoa

Beste behin, ultzamarrak ehizan Basaburua aldean eta erbiak ihesi egin.

Pedro Juan Ezkurrak Orokietako bertsolariak ikusi eta Orokietan barna pasatzerakoan hara zer bertso bota zien leihotik:

Ultzamako izturiek
Famatuek dire.
Tiratzen kusi ttugu
Hirutatik bide.
Nekez oartu diote
Eskopetari mire.
Basaburuko erbiek
Ligeroak dire.

Egun hartan dirudienez Ultzamako "izturi" famatuak ez ziren fin ibili.


Beste bertso batzuk: Orokietako behorrrarenak.

Orokietar batek behorra, markarik gabea, oihanean ibilki eta Ilarregiko aziendadun batek, berea zuelakoan etxera bildu, eta primaderan saldu gizendu ondoren.

Hala kontatu digu Eusebio Ezkurra Eugik, **Apezeneko** nagusiak eta Pedro Juanen bilobak:

"lokitako bior bat ustez beena zen saldu ziten Illarreitik"...e'tzin dui'kabe markaik eta...; yuse e'tzin ta.." "besten biorra saldu"...eta esan zioteken Pedro Juani eta honek bertsoak patu zittioteken"

Polliki samar aritzen zen bertsotan Eusebioren aitatzki eta honela jarri zituen:



Eusebio Ezkurra ▲

1

Belar berriak sendatzen ditu
beor aularen ajiak.
Indarra zerbait hartzen dunian
baita mudatu trajiak (1)
Ultzaman ezin ezaguturik
aurten bakoitzek berriak,
zerbait deskuidu pasatu dala
diote bertsolariak.

2

Orokietako beor polit bat
saldu da Ilarregitik.
Horra gizona engaiñatua
naiz sano egon burutik.
Jende formalak konpontzen dira
beste asko baiñan hobeki.
Kondukta ona izan ez balu
pagatzen dittu larrutik.

3

Berriz holako deskuidorikan
Ultzaman pasa ez dedin.
Medio onak nola diraden
dakienari galdegin.
Lege zarreko estila da
etxeko marka belarrin,
herriak berriz izena zer dun
maiskula bat epurdin.

Arrunt ongi kantatu dizkigu
Euxebiok bertso hauek. Hori bai,
hemengo bertsolariak Gipuzkoara
begiratzen zuten eta oraindik ere
bai, eta hango bertsolarien moduak
edo kopia nahi izaten zituzten edo
dituzte. Aise antzemanen diozue.

Pedro Juan Ezkurra ote zen gure bertsolaria?

Pedro Juan Ezkurra Orokietan
sortutakoa dugu, Juan Jose
Ezkurra Juarbe eta Francisca
Azkue Erzillaren semea. Aita
Orokietakoa eta ama gipuzkoarra,
Aiakoa, nahiz ttiki-ttikitatik hemen
bizitutakoa izan.

Kontu hau garbitze aldera, Pedro
Altsua Urkiolarekin egon ginen
galdezka ea nor zen Pedro Juan.
Hara zer esan zigun:

“Nire atautxie zen eta jaunartzekoan
ere bai. Eta trajea erregalatu zidan,
traje beltza, gero're ibili nuena”

“Pedro Juan zen, gizon bat elegantea,
jolastune, denekin aritzea gustatzen
zitzaiona, errespetuko gizona,
mezan-eta”

“Ez, Pedro Juan ez zen bertsolaria,
bere anaia bat zen, -ez dakit nola
zun izena-”

Apezeneko Eusebiorengana berriz
galdezka hurbildu gatzazkionean,
oraingoan esan digu Pedro Juan ez
zela bertsolaria, nahiz bertsozalea
izan. Pedro Juanen aita ote zen dio.
Erdarazko bertsoak bai badirela
Pedro Juanenak.

Apezenetarren bertso sena

Pedro Altsuaren kontakizunari
jarraituz:

“Pedro Juanen semea, Juan Cruz,
Apezenear nagusi gelditu zenari ere
bertsoak eta kantuak asko gustatzen
zitzaizkion. Beti kantari aritzen zen.
Bestek egindako bertsoak, denak
burun hartzen zittun. Mezan ere
hura zen jefea. Nolako boza zun! Eta
e'tzen ikaatzen. Harrek ze kantatzen
zittun! Andriak, Clarak, erraten zion:

-Jainkoan izenian, zaude ixilik! Beti
kantari ai'za ta!

-Ne osasune hori da! -kontestatzen
zion”

Hor dugu Apezeneko soka: Pedro
Juan edo bere anaia lehenik. Gero,
Pedro Juanen semea, Juan Cruz,
bertso eta kantuzale porrokatua.
Eta orain, berriz, Eusebio Ezkurra,
hau ere bertsozalea eta bertsolaria.
Jende aurrean ere behin edo
behin aritutakoa. Bai, bertsotarako
duen abiltadea ez diogu inola ere
ukatuko.



Txurdan



Patxi Oskotz eta Txurdan

(1) Zenbaitentzat bertso hau ulergarri
egiteko: *aziendak neguan ile luze latza
izaten du eta, udaberrian, gizontzeaz
gain, ile zaharra bota eta berria ateratzen
zaio, distiratsu.*

1.-OHARRA: Aipatutako bertso horiek
entzun nahi dituenak, hor topatuko ditu
amezti.eus gure agerkarian, Euxebiok
ederki kantatuak.

2. OHARRA: Bertso hauek Andres Astiz
Arregifraideak argitaratu zituen *Principe
de Viana* aldizkarian, 1967. urtean. Maria
Ezkurra Goldaratzeari jaso zizkion,
Zarranzko Etxeberrira ezkontzaz joan
zena. Iruñera bizitzera joandakoan hartu
zizkion bertsoak. Hala ere, bi huts egin
zituen Andresek, bat bertsoak orrazte
aldera aldaketa batzuk sartu zizkien;
eta bi, bertsoak bere aitari adjudikatu
zizkion, Andres Astiz Goldarazko
bertsolariari, alderdi honetan dudarik
gabe beste bertsolaririk izan ez balitz
bezala. Oso oker zebilen fraidea

(Bere aitari buruz idatzi zuen liburuan
ere aitaren bertsoak moldatu egin
zituen, inoiz egin behar ez dena)



▲ Apezena



Eduardo

Zubiria

Artearen eta sagardogintzaren artean

Sustrai imoztarak ditu Eduardo Zubiria artistak: ama oskoztarra eta aita muskiztarra, txikitatik harreman estua izan du eskualdearekin. Gaur egun ere, Iruñean bizi arren, etxea eta sagarrondoak ditu Muskitzen, eta sarri etortzen da bertara. Aspalditik dabil artearen munduan sartuta Zubiria, baina kuriositate handiko pertsona izaki, beste hainbat jardunetan ere ari da. Besteak beste, sagardogintzan hasi zen duela urte batzuk.

Zer nolako harremana duzu Imotzekin?

Txikitan, 3 edo 4 urte nituenetik, Oskotzen egoten nintzen beti, astebururo joaten ginen amonarenera, eta nire haurtzaro guztia han eman nuen. Amonari asko laguntzen nion, kooperatibana-eta. Astean zehar Iruñean izaten ginen, baina asteburuetan han. Gero, soldaduska egitea joan nintzen eta handik bueltan Iruñean lanean hasi nintzen, beraz, gutxiago joaten ginen. Baina orduan Muskitzen instalatu ginen nire aitarena zen etxean. Lan handia zegoen han eta Oskotza joatez utzi eta Muskitzen izaten ginen gehiago. Ganadua genuen etxean eta iluntzeetan askotan jaisten ginen lanak egitera, baina lotara beti Iruñera. Egia da orain

Oskotzko jende gazteak ez nauela ezagutzen, baina adineko guztiek bai.

Orain ere asko etortzen zara Muskitza, sagarrondoak baitituzu bertan.

Bai, betidanik izan ditugu etxean sagarrondoak, inguruko zaharrenetakoak izanen dira, batzuk 100 urte baino gehiago dituzte. Gainera, azken urteotan, barietate zaharrak berreskuratzen aritu naiz. Lehen urtean txertatzeak egin nituenean ez ziren ongi atera, baina azkenean, herriko Kandido Zigandak erakutsi zidan txertaketak egiten. Momentuz, etxerako egiten dugu sagardoa, hurbilekoentzat, baina datorren urtetik aurrera landatu ditugun zuhaitz gehiagok ere

emanen dute, beraz, ikusiko dugu. Ah, eta Erronkari inguruan ere badituzte beste sagarrondo batzuk landatuta, 1.100 eta 1.400 metroko altueran! Nik uste estatu mailan ez dela altuera horretan besterik izanen... Etxeko barietateak eraman ditut hara, ikusteko toki batetik bestera barietate berak zein emaitza ematen duen.

Etxean bertan egiten duzue sagardoa?

Bai, guk geuk egiten dugu. Esan behar da Donostiko Sagardo Forumean dominak eman izan dizkigutela, eta badirudi ongi ari garela. Guztia eredu ekologikoan egiten dugu. Hori bai, esan behar da, egiten duguna sagardo desberdina dela: hemengo sagardoak ohikoa duen azidotasuna kentzen saiatu

“

1.400 metro inguruan landatuak ditut sagarrondo batzuk Pirinioetan, estatuan bakarrak izanen dira

”





gara, sagardo suabegoak dira hauek, digestiboagoak. Badugu bat oso berezia dena, izotzezko sagardoa deitzen da eta Kanadan ohikoa da. Postreetarako eta aperitiboetarako da egokia.

Tira, goazen orain arteaz hitz egitera... Noiz eta nola hasi zinen artearen munduan?

Zaila da esaten! Beti aritu izan naiz gauza artistikoak lantzen, umetatik datorkit, eskolan ere gauza desberdinak egiten nituen. Egurra lantzen dut nik, eta hortik abiatuta ikasi dut dena, material diferenteekin hasi nintzen. Baina serioago, duela 15 bat urte edo

hasi izan nintzen, erakusketekin-eta. Museoetatik mugitu dira nire zenbait pieza, horietako baten bat Japonian ere izan da. Eta bestela, hemen ingurutik mugitu dira erakusketak, Iruñean, Lizarraldean, Zizurren, Madrilen, Malagan eta Marbellan...

Arte matematikoa egiten duzula irakurri dut hortik. Zer da hori?

Ordenagailuak artearen munduan sartzea da, nolabait, artea ordenagailuekin egitea, baina gero guztia eskuekin lantzen dugu. Lan handiena programazio bidez egiten da, algoritmoekin. 1970-80 inguruan hasi ginen

artean ordenagailuekin lan egiten. Zaila da azaltzen, baina nolabait esateko, ordenagailuan programatzen duzuna gero eskuekin egitean datza. Tamaina handiko piezekin egiten dut lan, hiru dimentsiotakoak balira bezala... tira, azken aldian planoan ere ari naiz lanean, erretxinak eta bestelako materialak sartuz.

Artearen eta artisautzaren arteko mugak oso lausoak direla ere esan izan duzu. Horrela da zure kasuan ere?

Bai, erabat. Azkenean, ordenagailuarekin egiten dugu hasierako lana, baina ondorengo pauso guztiak eskuz egiten dira. Lehen lana mentala da, hori gero ordenagailuetara eramaten da, eta hortik gero paperera, eta nire kasuan papera egurra da. Ez da brotxa batekin oihal bat pintatzea, nire oinarria egurra delako. Ordenagailuan prestatu dudana, gero, eskuz, egurrera pasatzen dut. Egia da gaurko makineriak asko laguntzen digula, baina azkenean, guztia oso artisaua da.

Gurea bezalako landa eremua izan daiteke artistentzako inspirazio iturri, ekarpenik egiten dizu zentzu horretan?

Bai, zalantzarik gabe. Arlegi herrian daukat nire tailerra eta estudioa, Iruñetik bost minutura dagoen herritxo txiki batean. 10 lagun aritzen gara bertan lanean, baina esan daiteke guztiz bakarrik egoten garela, atea ireki eta naturaz inguratutik gaude, Muskitzen bezala. Inoiz ez dut poligono batean lan egin nahi izan. Bere garaian, tailerra Muskitzen bertan jartzekotan izan ginen, baina egiten ditudan lan asko kanporako direnez, zailagoa zen dimentsio handiko lanak hortik ateratzea. Arlegin hiri ondoan gaude eta errazagoa da.



▲ Basajaun sagardoa da Zubiriaren marka

Kuriositate handiko pertsona da Zubiria, jarduera eta ekintza desberdin ugari egin dituena. Gaur egun esku artean dituen arte eta sagardogintza proiektuak horren erakusle dira, baina, hori gutxi balitz, urte askoan beste jarduera bitxi batean ere aritu zela kontatu digu. Hain zuzen, lera-txakurrekin

(trineoa tiratzen duten txakurrak) ibiltzen zen, entrenatzen eta lehiaketetan parte hartzen. Oskotz eta Beuntza arteko xendetatik askotan ibiltzen omen zen entrenamenduetan. Herritarren bat gogoratuko da seguraski ikuskizun horretaz.



Ezjakinei

ikasiz (2)

ANTZIGARRA EDO LANTXURDA

Hizkuntza bat ikasteko adi egotea bezalakorik ez dago. Aurrean duzunari erne. Eta hizlaria xaharra baldin bada, hobe! Zoritxarrez, gaztetan, askotan, ez zaio zaharrari kasu egiten, merezi adina behintzat. Eta orain eta gutxiago, Mundua gurekin sortu izana balitz bezala, dena jakinda jaio bagina bezala. Gaitz bat da hau, eta bere izena ere badu: **Adanismoa** erdaraz. Adankeria euskaraz? Gauza jakina baita, Adanen aurretik ez zela inor bizi Munduan eta, hark, berak, bere kabuz den-dena ikasi beharra izan zuela. Hortik adanismoa gaitz honen izena. Gaurko egunean oso zabaldua dagoen gaitza da hau, ia-ia Covid19a bezainbat. Eta euskararen gainean ari bagara are eta zabalduagoa da gaitza. Edozein petrali iduritzen zaio dena badakiela, deus irakurri beharrik izan gabe edo inori galdetu edo ikasi gabe.

Eta kontua da, askotan, zerbait jakinagatik ere, gutxiena espero duzunaren ahotik ere ikasteko aukera izaten dela. Horretaz idatzi nuen behin. Gaurkoan, berriz, iltze berari emanen dizkiot bi mailukada.

Behin, Iruñeko emakume batekin hizketan, erdaldun huts-hutsa, euskaraz 15-20 hitz baino gehiago ez zekiena, eta, hara, nik ez nekizkien bi hitz erakutsi zizkidan. Goiz batez, autoan nindoala berarekin, Pilarrekin, Pilar baita bere izena, hala bota zidan: Hay mukutsa! (lantxurda bota zuen gauez, arbola guziak lantxurdez beterik zeuden, oihana zuri-zuri zela)

Inoiz entzun ez nuen hitza eta Pilar erdaldunak niri erakutsi! Bai, Etxalar eta Bera aldean eta horrela esaten omen diote Lantxurdari,

Oronoztik hasi eta Beraraino bederen.

Beste toki askotan antzizarra deitzen diote, Leitzaldean esate baterako.

Beste behin, Pilarrekin hizketan, ttikitan Auritzen pasatzen zituela udak eta bertan ikasi zuela zapoaren izena: **Kunkun**. Ez nuen behin ere entzun. Duda dut Auritzen hala den, baina Sakana aldean-eta bai hala dela, **kunkuna** erabiltzen dute zapoari deitzeko. Ederki jarritako hitza, gauez kantari ari denean, horrela egiten baitu: **kun**, handik bi segundotara, berriz, **kun**... Kantu polita, sarkorra, zolia, urrutira entzuten dena. Horregatik izena, **kunkuna**. Udako gau epelen batean entzun, belarria erne eta aise antzemanen diozu zapoari!





Horrelako bitxiak, horrelako perlak atzeman ondoren, balio du ardo frexkotik xorta bat hartzea. Ni banoa ostatura ardo eder bikaina dastatzera. Bazatoz? Adankeriak utzi beharko ditugu bazterrean eta besteari entzun!

OHARRA:

Hemen **lantxurdea** baina Hiztegi gehienetan **lantxurda**. Eta escarcha bezala dator, izotza, alegia. Baliteke **lantxurdea** guk gaizkierabiltzea, Eltsoko kontu zahar batean **lantxurda** topatu bainuen! Nolanahi gisa, nahiz hiztegiak izotza dela jarri, gurean ez da hala.

Gure alderdian izotza eta lantxurdea bi gauza dira. Izotza zer den denok dakigu eta ez dut zer den azalduko. Aldiz, lantxurdea beste kontu bat da, izotzarekin izaten ahal da lantxurdea, izotzik gabe ere bai; kontua da, gora, mendian, arbolak-eta izotzez beterik ageri direla, zuri-zuriak. Seinale altura horretan laino izotzuren bat pasa dela eta arbolak ere izotzu eta zuritu dituela. Hala ere, ez du esanahi ibarrean eta mendian izotza bota duenik; arbolak bai, izotzuak, baina ez bestea.



Txurdan

Hiztegia

Adi: erne

Bere kabuz: bere gisa

Sarkorra: hemen ahots txintxo

Zolia: sonoro (Bizkaiko hitza da)

Antzeman: reconocer

Bitxia: joya

Atzeman: descubrir, kasu honetan.

Beste batzuetan, coger, capturar.

Zorionak Zorionak !



Zorionak Ortzi!



Zorionak Aurtzi!



Zorionak Ainhua eta Añhane!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Ultzamatik Hondarribira, arpoia eskuan

Iñaki Ariztegi, Eneko Berasain, Iñaki Ostitz eta Asier Orbegozo ultzamarrak duela bostpasei urte hasi ziren itsasazpiko arrantzan. Arpoiaz baliatuta, oxigenorik gabe, apnean aritzen dira, batez ere muxarrak arrantzatzen. Horretarako Hondarribira joaten dira. Han, Nafarroako federazioak antolatzen duen txapelketan ere parte hartu dute.

Bostpasei urte daramatzate, baina zaletasun berezi honen jatorria aspalditik dator. Iñaki Ariztegi lizasoarrak kontatu digu: "Duela 10 edo 12 urte, oporretan, kostaldera joaten ginelarik, betaurrekoak eta tuboak hartzen genituen snorkle egiteko, baina arrainak ikustea eta ezin hartu... Orduan lagun batek arpoi txiki bat erosi zuen, eta horrekin ibiltzen ginen laurok. Ondoren guztiok erosi genuen, eta horrela hasi ginen".

Norberaren arpoi txikitik handiago batera pasa, eta azkenik, txalupa ere erosi zuten. Ontziarekin joan etorrian aritzen ziren Ultzamatik Hondarribira, baina, dagoeneko, plaza bat dute portuan.

Oxigenorik gabe

Arpoia beharrezkoa da, noski, txalupa ere baliagarria da, baina

garrantzitsuena, norberaren gaitasuna: "Fisikoki zenbat eta hobeago egon, hobeto. Apnean egiten dugunez, horretarako prestatu ginen, ikastaro bat egin genuen ikasteko. Bostpasei urte daramagu honetan, baina oraindik hasi berriak garela esan dezakegu, minutu edo minutu t'erdiko apnea egiten dugu gutxi gorabehera. Urte asko daramatenak bizpahiru minutu eman dezakete ur azpian".

Apnean ikasteaz gain, bestelako prestakuntza ere izan behar dute. Nafarroan federatuta daude, Euskadiko baimena atera behar izan dute eta urtero medikuak azterketa berezi bat egiten die.

Itsasontziak ere asko laguntzen ditu erosoagoa eta seguroago arrantzatzeko: "Hasi ginenean haitzetatik bota eta inguruan ibiltzen ginen. Hori arriskutsuagoa

da eta ez da oso eroso. Horregatik, denborarekin, gustora aritzen ginenez, lau lagun artean itsasontzia erosi genuen. Hasieran Ultzamara ekarri eta eraman ibiltzen ginen, ondoren Hondarribiko kirol portuan plaza bat hartu genuen eta han izaten dugu ontzia".

Arpoia

Beharbada galdetuko diozue zuen buruari, baina nola ibiltzen da arpoia? Iñaki Ariztegik azaldu digu: "Makil luze bat da, hesi bat lotuta duena, pitarekin. Beheraino jaisten gara, hor ahal dugun geldien egoten gara eta arrainak hor zerbait dagoela ikusten dutenean, geldirik bazaude azkenean hurbildu egiten da. Orduan, tiroa botatzen dugu, arraina hurbil dagoenean".

Modu honetan arrantzatzen dituzte hainbat motatako arrainak. Erregina muxarra da, horren bila aritzen dira batez ere, baina olagarroak, lupiak, txibiak, eta, uda partean, itsas kabrak ere hartzen dituzte. Hori izaten da saririk hoberena, nahiz eta jardunarekin disfrutatzeagatik egiten dute. Txapelketetan "ez dugu inoiz irabazi, azkenak ez izatea da helburua (barreak), baina oso gustora egoten gara, gero partaide guztiak bazkaria egiten dugu eta pasadizoak kontatzen ditugu".



ezk-esk.: Eneko Berasain, Iñaki Ariztegi eta Iñaki Ostitz.



ekoaholkuak

Janariarekin gehiegikeriarik ez

Gabonak hemen ditugu eta horiekin batera mota guztietako otorduak: laneko bazkari zein afariak, famili artekoak edota lagun artekoak. Aitzakiarik ez da faltako, Gabonak gogoko dituzten horientzat eta gorroto dituztenentzat ere; gehienak jakiz betetako mahaiairen bueltan eseriko dira hainbat egunetan. Eta guztietan fenomeno berdina errepikatuko da: janaria soberan, nola ez? Inork ez dezala



▲ Elikagai xahuketa

esan etxe honetatik goseturik joan denik!! Hala ere, ez ahaztu jatea ez dela helburua, aitzakia baizik, horixe ba, elkartzeko eta gustura egoteko aitzakia. Egia esan, nik dagoeneko gustura egoteari utzi diot mahaian horrelako janari erakustaldien aurrean.

Datuak lotsagarriorritzekoak dira, munduan gosetea geldiarazteko gai ez garen bitartean, janari soberakin kopurua izugarria da: 173kg. urtean europar bakoitzeko. European ekoizten den elikagaien %20 galdu egiten da, eta horren erdia etxeetan gertatzen da. Honek guztiak ere negutegi efektuko gasen isurketa eragiten du, eta beraz, klima aldaketa areagotzen.

Zein aukera ditugu honen aurrean:

- Erosketak egiterakoan ongi aurreikusi behar duguna eta hori besterik ez erosi.

- Sukaldatzerakoan ere, jango duguna aurreikusi eta soberakinak ekidin.

- Jatetxe edota ostatueta jaten ez duguna etxera eraman, horretarako ontzi bat eraman dezakegu. Hau egiten duena ez da xuhurra, arduratsua baizik. Izan zaitez zure lagunen artean neurri hau zabaltzen duena!

- Etxerako ditugun ohitura hauek, eraman lagun arteko zein famili arteko otorduetara.

Gabonak garai bikaina dira erronka hau praktikan jartzeko! Otorduez gozatu, janaririk xahutu gabe!



Lurra



Jose Luis
Fernández
Gutiérrez

▲ Julian Retegui, 1980ko argazkia, urthe hartaco buruz buruco finalarena, Maizen aurka.



URTE BERRI ON! 2022Ko ostiral kulturalak indarrez hasiko dira urtarrilean

Pasa den urtean Zumiriki filmarekin hasi genituen ostiral kulturalak. Bere egilea, Oskar Alegria gurera etorri zen pelikula komentatzera. 2021A, berriz ere, urte arraroa izan da, baina, hala eta guztiz ere, ia berrogeita hamar kultur jarduera egitea lortu dugu: hamabi erakusketa; estilo ezberdinetako zortzi kontzertu -blues, rock, pop, rondalla...; zazpi dokumental edo film, gehienak egilearekin edo proiektzioaren osteko solasaldiarekin; zortzi liburu edo komiki aurkezpen; lau antzezlan; eta hitzaldiak, umeendako tailerrak... Esan daiteke, beraz, kultura ikuspuntutik, ez dela urte txar ba izan. Eta 2022an gauza bera espero dugu. Horregatik, Oskar Alegriak (ostiral kulturalen aitabitxi izandatuko dugu) estreinatuko du berriro urtea, bere lehengo pelikularekin, Emak Bakia. Urte berri on!

EMAK BAKIA (Oskar Alegria)


"Haizeak eta halabeharrak eragina dute film xarmangarri honetan; baina eskua da maisu", idatzi zuen pelikula honetaz Bernardo Atxagak. Man Rayren film batek, Emak Bakia izenekoak ('Utzi bakean' esateko beste modu bat), bilaketa baten istorioa eragiten du. Miarritzetik gertu, 1926ean filmatutako etxeak izen berezi hori zuen, eta Oskar Alegriak etxe haren bila oinez abiatzea erabaki du. Man Rayk etxandi horren hiru plano besterik ez zituen ezagutarazi: sarrerako atearen irudia, leiho bateko bi zutabe eta kostalde hurbilaren zati bat. Irudi zahar horien bidez etxea bilatzea ez da erraza izango. Izena ez da artxiboetan agertzen eta egun inork ez du etxea gogoan. Horregatik, laguntzeko eskatuko zaie bestelako berriemaileei, zoriari eta haizeari kasu.

Urtarrilaren 14an, 19:00etan, Larraintzarko Gizarte Etxean, izango da proiektzioa.

ESKROTO/GAVILAN, LANBIDEZ ARTISTA

Hurrengo ostiralean, urtarrilaren 21ean, 80ko eta 90eko hamarkadetara egingo dugu bidaia, liburu baten eskutik. Txus Pérez Artuchek Tijuana in blueko eta Kojón Prieto y los Huajoloteseko abeslari miretsiari buruzko oso biografia dokumentatua aurkeztuko digu. Gavilan/Eskrotok arrasto sakona utzi zuen hainbat gazte belanalditan. Tijuana in Blue, lehenik, eta Kojón Prieto y los Huajolotes, geroago, talde nafarren sortzailea izan zen Marco Antonio Sanz de Acedo Montoya, Eskroto -lehenik- eta Gavilán -geroago-. XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetakoa nafar musika eszena erradikal eta zabalaren baitan zaila da aurkitzea berea bezalako izaera, adimena, konpromisoa, jarrera eta originaltasuna. 80ko hamarkadako ia euskal belaunaldi osoa bezala, bizitza azkarra eta bizia izan zuen eta amaiera trajikoa, baina, hala ere, edo, hain zuzen ere horregatik, arrasto ezabaezina utzi zuen gure memoria kolektiboan, eta ondoren

etorri ziren hainbat belaunaldiren bilakaera musikala zeharo markatuz. Erreferentzia politiko, sozial eta bitala izan dira Eskroto, Gavilán eta Marco. Lanbidez artista izatea helburu zuen aparteko tipo baten lehen biografia duzu honakoa.





VELUTINE TALDEAREN KONTZERTUA

Eta hilea bukatzeko kontzertu bat. Beratik etorriko da Velutine taldea, bere lehenengo EPa aurkeztera. Martxoan Joseba B Lenoirrekin grabatuta, atmosfera espazialak, goxoak eta noise-a biltzen ditu lanak. Rocketik, indie popetik, elektronikara hurbiltzen den proiektu berria da talde honetakoa. Gurekin egongo dira urtarrilaren 28an, 19:00etan.



IÑAKI ATXAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Programazioa borobiltzeko, Iñaki Atxaren erakusketa bat: "Basabizitzaren sekretuak argazkitan". Elizondoko argazkilaria Finlandian, Errusian eta beste herri

batzuetan egon da, 20 urte baino gehiago, animalien bizitza basatia erretratatzeko eta bere lanaren hautaketa bat ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 10etik 31ra.



LIBURU GOMENDIO BAT: INFINITUA IHI BATEAN

Bukatzeko, liburu gomendio bat: Infinitu ihi batean (Irene Vallejo/ Itzulpena: Fernando Rey)

Azken urteotako liburu arrakastatsuenetakoa izan da eta orain Pamiela argitaletxeren eskutik euskaraz irakur dezakegu (Pamielak, portzierto, uholdeen ondorioak pairatu zituen pasa den abenduan, beraz, haien liburuak gomendatzea, erostea edota irakurtzea lagunarik onena da). Liburuen historiari buruzko liburua da hau. Hitzek espazioan eta denboran zehar bidaiatu zezaten asmatu genuen tresna liluragarriaren bizitzan barnako ibilbidea. Haien fabrikazioaren historia, ia



hogeita hamar mendeetan egin diren proba eta diseinu guztiena. Mota askotako liburuak sortu baitira: kez, harriz, buztinez, ihiz edo lezkaz, zetaz, larruz, zuhaitzez eginak, eta azkenak, plastikoz eta argiz eginak. Gainera, bidaia-liburua ere bada. Alexandroren gudu-zelaietara joateko, Vesuvioren mendi mazelako Papiroen Villara joateko, edo Kleopatraren jauregiara edo Hipatiaren hilketaren gertalekura, ezagututako lehenbiziko liburutegietara eta eskuizkribuak kopiaitzeko lantegietara, kodex debekatuak suntsitu zituzten suetara, gulagera, Sarajevoko liburutegira eta Oxfordeko lur azpiko 2000. urteko labirintora. Liburu honek, bestalde, klasikoak mundu garaikidearekin lotzen ditu, baita gaur egungo eztabaidagaiekin ere: Aristofanes eta umoristen kontrako epaiketak,

Safo eta emakumeen literatur ahotsa, Tito Livio eta fanen fenomenoak, Seneka eta egia ondokoa... Baina, oroz gain, denboran zehar liburuak sortu eta babestu dituzten milaka gizon-emakumeren abentura kolektibo xarmagarria da: istorio eta ipuinen kontalariak, eskribak, irudigileak, itzultzaileak, saltzaile ibiltariak, maisu-maistrak, jakintsuak, espioiak, errebeldeak, mojak, esklaboak, abenturazaleak... Irakurleak, mendialdekoak zein orroka ari den itsasoaren ondokoa, energiaren bilgune diren hiriburuetakoa zein kaos garaietan babesleku diren bazter-parajeetakoa. Jende xehea, xumea, historiak erregistratu ez dituen hainbeste gizon-emakume. Liburuen salbatzaileak, horiek baitira saiakera honen egiazko protagonistak.



Patxi Irurzun,
Ultzamako liburuazaina

2021eko Azaroa

2021eko azaroan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ANUE Olague

Adur Iraizotz Egozkue, Jon eta Aitziberren semea, azaroaren 22an sortua.

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak:

ULTZAMA Alkotz

Jose Javier Lopez Mariñelarena, Gaskueko **Urritxenekoa** eta Coloma Juanola Sala, Gaskuen ezkondu ziren azaroaren 5ean.

“ Mila zorion ezkonberriei ”

Heriotzak:

LANTZ

Jose Maria Oiaregi Goñi, **Etxotoko (Sastrenea)** nagusia; azaroaren 11n hil zen 91 urtetan.



▲ Jose Mari Oiaregi

BASABURUA Igoa

Enai Apezetxe Mariezkurrena, Mikel eta Josuneren semea, azaroaren 2an jaioa.



▲ Enai Apezetxe Mariezkurrena

ULTZAMA Olano

Aiur Ostitz Nuñez, Iñaki eta Aneren semea, azaroaren 28an sortua **Jaxintonean**.



▲ Olanon berriz ere badira haurrak

Maria Corpus Maisterrena Huarte, **Errotazarreko** etxekoandrea; azaroaren 19an hil zen.



▲ Maria Corpus Maisterrena

Martin Etxaide Ariztegi, **Lerdeneko** nagusi zaharra; azaroaren 28an hil zen 97 urtetan.



▲ Martin Etxaide

ULTZAMA Alkotz

Pedro Jose Orkin Hernandorena, **Xalbador etxeko** semea; azaroaren 5ean hil zen 85 urtetan.



▲ Pedro Jose Orkin

Evaristo Erbiti Beramendi, **Martixeneko** nagusi zaharra; azaroaren 10ean hil zen 86 urtetan.



▲ Evaristo Erbiti

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2021-2022 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina		
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Landaberri	Goiz Kronika Osasun etxea
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Amarauna	
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia		
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Goizak gaur + Kirol legez	
						Bertsoinka	BerriaFm Lur eta Murmur
14:30-15:00	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Kera Deia (Zuzenean)	
15:00-16	Beste bat (Naiz irrati zuzenean)	Beste bat (Naiz irrati zuzenean)	Beste bat (Naiz irrati zuzenean)	Beste bat (Naiz irrati zuzenean)	ADI	Berandu- egi Hankak Lurrin	Soinugela
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Hiru kortxea	
18-19	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		Erro ta berri
19-20	Gelditu makinak (Zuzenean)	Kultur kuboa	Zuria Beltzez	Global musik	Revolutio- nary grooves	Gaur Egun	Lore Hostoak (Eitb Potkast)
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
21-22	Barruan gaude (Eitb Podkast)	Piperpolis (Zuzenean)	Nola aldatzen diren gauzak (Zuzenean)	Klak	Zarata Zarautz	Haus of Beats	Irratiko Fikzioa
22-23	Musika	Urratsa (Eitb Podkast)	Sateliteak (Zuzenean)	Reggae Fever (Zuzenean)		Musika	

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:** Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK....:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM